

«Grief» ipuinaren itzulpena eta analisisa (ingeleza-euskara)

GRADU AMAIERAKO LANA

Ainhoa Mendiluze Ormaetxea

Tutorea: Isabel Etxeberria Ramírez

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saila

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

Letren Fakultatea

2018/2019 ikasturtea

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek Lucia Berlin idazlearen «Grief» ipuina ingelesetik euskarara ekartzea du ardatz, eta bi zati ditu: itzulpena eta itzulpen-prozesuaren analisia.

Analisi-lanaren zati nagusia «Grief» itzultzeko ariketa praktikoaren bueltan hezurmamitzen da, prozesuan zehar izandako gogoeta-bilduma moduko bat baita. Lehenik eta behin, ipuina testuinguruan kokatuko dugu, idazlearen biografiaren bidez, hau da, lana bere sorburu testuinguruan kokatuz. Ondoren, Lucia Berlinen xede-kulturan duen entzuteari buruz jardungo gara; bere lanak oraindik ez daudenez euskaraz argitaratuta, euskal kulturan erdaretako bertsoiek izan duten harrera aztertuko dugu.

Gogoetak hiru bloke nagusitan aurkeztuko ditugu: lexikoa, morfosintaxia eta pragmatika. Hala ere, bloke nagusi horietatik kanpo kokatu dira bi alderdi, ahozkotasanari eta pertsonaien karakterizazioari dagozkionak, alderdiok zehar lerro izango baitira hiru bloke nagusietan ez ezik, itzulpen-prozesu osoan ere.

Bloke nagusien muina itzulpen-prozesuan zehar suertaturiko zailtasunak dira, eta erabakien nondik-norakoak azaltzen dituzte. Lexikoaren blokean, lexiko-elementu zehatzez arituko gara: testuaren izenburuaz eta azken esaldiaz, maileguren erabileraz, terminologiaz, erregistroaz, esanahi murrizketaz eta adierazkortasunaz. Adibide eta itzulpen-arazo zehatzak aztertzeaz gain, euskara batuaz eta Iparraldeko euskaldunetz mintzatzeko parada ere izango dugu. Bigarren blokean, «morfosintaxia» izenekoan, batik bat tratamenduari buruzko lanketa egingo dugu; bertan, jakin nahi izan dugu euskaraz ea hitanoa noiz eta nola erabili izan den eta euskarazko itzulpenetan zein toki izan duen, hala gure itzulpenean erabiltzea zuzena ote zen jakiteko. Hirugarren bloke nagusian, «pragmatika» izenekoan, adibideen bitartez azalduko dugu literatur itzulpenean pragmatikak duen garrantzia, lexiko-zehaztasuna bigarren mailako izateraino; jarraian, kultur erreferentziez, hizkuntzen arteko distantziez eta haur hizkeraz jardungo gara. Lanarekin amaitzeko, ondorio nagusiak laburtuko ditugu.

Ikus daitekeenez, «Grief» ipuinaren alderdi ugari eta askotarikoak azertu ditugu, eredu jakinak zein joera orokorrak. Adibide praktiko bat izateaz harago, lanak literatur testu baten itzulpen prozesua aztertzeke aukera ematen du.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	4
2.	TESTUINGURUA	5
3.	ITZULPENAREN ANALISIA	8
3.1.	Aldez aurretiko oharrak.....	8
3.1.1.	Ahozkotasuna.....	8
3.1.2.	Pertsonaien karakterizazioa	9
3.2.	Lexikoa.....	9
3.2.1.	Lexiko aukeraketa: izenburua eta azken esaldia.....	10
3.2.2.	Lexiko aukeraketa: maileguak	11
3.2.3.	Lexiko aukeraketa: terminologia-arazoak	15
3.2.4.	Lexiko aukeraketa: erregistroa.....	18
3.2.5.	Lexiko aukeraketa: esanahi-murrizketa	18
3.2.6.	Lexiko aukeraketa: adierazkortasuna.....	19
3.3.	Morfosintaxia	19
3.3.1.	Tratamendua: hitanoa zilegi ote den	19
3.3.2.	Aditz trinkoak	22
3.4.	Pragmatika.....	22
3.4.1.	Pragmatika, lexiko-zehaztasunaren gainetik.....	22
3.4.2.	Kultur erreferentziak.....	24
3.4.3.	Hizkuntzen arteko distantzia.....	26
3.4.4.	Haur literatura eta haur hizkera	27
4.	ONDORIOAK	29
5.	BIBLIOGRAFIA	31
6.	ERANSKINAK	34
6.1.	Itzulpena	34
6.2.	Sorburu-testua.....	49

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honetan, ingeles-euskara hizkuntza-konbinazioko itzulpena izango da hizpide. Hain justu, Lucia Berlin idazlearen «Grief» ingelesezko ipuina euskarara ekartzean sortutako zalantzak eta horien aurrean hartutako erabakiak aztertuko dira. Lana itzulgai zehatz bateko zalantzen bueltan zertzen bada ere, bertako hausnarketak baliagarriak suerta daitezke narratibazko beste lan batzuk itzultzeko ere.

Egituraz, lan hau testu jakin baten inguruko hausnarketa-sorta bat da; ez dator, hortaz, orain arte arakatu gabekoak argitzera. Alabaina, itzulpengintza bera jardun kolektibo gisa ulertzen dugu, egunez egun testuz testu elkarrizketa bidez sortzen den zera moduan, hizkuntza bera ere egiten den neurrian aldatzen denez gero, eta sozialki erabat baldintzatua. Sare-lan horretan, ezinbestekoa da itzultzaileon arteko hartu-emanak, esperientziak trukitzea, norberak beretik ematea eta etengabe besteengandik ikastea. Hemen mahaigaineratutako hausnarketek, horrenbestez, batzuek aspaldi hasi zuten bide horretan beste aletxo bat jarri nahiko lukete.

Itzulpen munduaz ezer gutxi dakienari galdetuta, itzulpengintza literaturarekin lotuko du segituan, baina lanbidez itzultzaile direnen eguneroko ogia bestelakoa da Euskal Herrian: testu-administratiboak dira plater nagusi, eta literatur itzulpenak aldian-aldian dieta ahaztu eta plazer hutsez dastatzeko apeta. Azken batean, merkatu-logikak agintzen duen jendarte batean, adierazpide artistikoei bazterrean gelditzeko arriskua dute. Horren guztiaren ondorioz, unibertsitate ikasketetan apenas izaten da literatur itzulpenaz luze eta zabal jarduteko paradarik, eta neure buruarekin zor hori kitatzeko modu bat da lan hau.

Lucia Berlin azkenaldian nahiko boladan dago Mendebaldeko literaturan; euskaraz, ordea, ez dago haren ezer irakurtzerik. Hauxe izango da, beraz, Lucia Berlin euskarara ekartzeko lehen saiakera. Balio dezala Berlin-zaletasuna pizteko, eta izan dadila akuilu, Berlinek euskal literaturan bere tokia egin dezan.

Gradu Amaierako Lan bateko baldintzek zehazten duten karaktere kopurua errespetatzeko, eta ahalik eta azterketarik osatuena egite aldera, itzulpena bera eta sorburu testua eranskinen atalean aurkeztuko ditugu. Hala ere, azpimarratu nahi dugu lan honen azken emaitza ez dela analisia, ezpada itzulpena bera, adierazitako gogoeta guztien ondorioen isla praktikoa baita.

2. TESTUINGURUA

Lucia Berlin

Lucia Brown Berlin (1936-2004) kontakizun laburrak idazten zituen idazle estatubatuarra zen. Bizi bitartean izan zituen jarraitzeak, baina inondik ere ez hil ondoren bezainbeste; hain justu, 2015ean, haren kontakizun batzuk argitaratu zituzten *A Manual for Cleaning Women* liburuan, eta liburu horrexekin jo zuen idazleak goia.

Berlin Alaskan jaio zen, baina bizimodu nomada izan zuen, eta hainbat tokitan bizi izan zen haurtzaro eta nerabezaroan, Texasen edo Txilen, kasu. Idatzietan erakusten duenez, ama alkoholikoa zuen, eta txikitatik bakarrik moldatzen ikasi behar izan zuen. Idazle edo kazetari izateko nahiak bultzatuta, eta gaztelaniaz ederto moldatzen zela, Mexiko Berriko Unibertsitatean hasi zen ikasten.

30 urtetatik aurrera, ogibide arrunten bidez irabazi zuen eguneroko ogia, halabeharrez, hiru aldiz dibortziatu ondoren lau seme-alabaren kargu geratu baitzen. Izandako ogibideak ikus daitezke bere lanean: etxe-garbitzaile, erizain, harreragile, irakasle zein telefono-operadore lanetan aritu zen. Idazten aspaldidanik jardun eta gero, nahiko berandu argitaratu zioten lehen liburua; lehen bilduma, *Angels Laundromat*, 1981ean argitaratu zen, baina 1960an idatziak zituen bildumako lehen piezak. Ondoren, guztira kontakizun laburren sei bilduma argitaratu zituen. Salmentetan arrakastatsua ez izanagatik, literatura munduan eragin handia izan zuen.

1990eko hamarkadan, sormenezko idazkuntza irakasten jardun zen, unibertsitatean nahiz kartzelan, bitartean borrokan ziharduela bere osasun-arazoen eta alkohol-mendekotasunaren aurka. Urte horietan, zenbait desintoxikazio-zentrotatik igaro zen, eta maiztu egin zituen Mexikorako bisitak, bertan ahizpa minbiziak erri baitzuen. Alkoholismoa eta gaixotasunak behin eta berriro ditu bere lanetan hizpide, eta horrek Berlin bereizi egiten du beste idazleengandik, kritikarien arabera, gaiok ezohikoak baitziren garaiko literaturan. Azkenik, 68 urterekin hil zen.

Berlinen kontakizunek asko dute autobiografikotik. Ezagun zuenaz idatzi zuen, familiaz, maitasunaz eta lanaz, estilo zuzen, simple eta garbiz (horregatik esaten da errealismo zikinaren korrontekoa dela); ez darabil tonu moralistik, eta pertsonaien keinuak eta hitzak zorrotz zaintzen ditu. Ospitaleetan, desintoxikazio-zentroetan, auzo marjinaletan bizi diren pertsonaiak ditu inspirazio-iturri, eta haien minen eta pozen kontrastuarekin

datza kontakizunen grazia. Betiere sentiberatasunetik, baina espanturik eta biktimismorik erakutsi gabe, bizitzaren alderdirik gordinena erakusten du, baina umoretik. Kontakizun laburretarako duen artezia da gehien goraipatzen zaiona, genero bereko handienekin konparatu izan ohi dute, Hemingway, Alice Munro edo Bukowkskirekin, kasu.

A Manual for Cleaning Women

2015. urtean, AEBko argitaletxe garrantzitsuenetako batek (Farrar, Straus and Giroux-ek) *A Manual for Cleaning Women* argitaratzearekin lortu du Lucia Berlinen izenak itzala, hau da, hil ondorenean. Liburua haren 43 kontakizun «onenen» antologia bat da, eta aste gutxian, libururik salduenetako bat bilakatu zen AEBn. Gaur-gaurkoz (2019ko maiatza), 21 hizkuntzatara itzuli da (<luciaberlin.com> web-orriko datua). Gaztelaniazko itzulpenean, *Manual para mujeres de la limpieza* (Alfaguara, 2016), Espainian 100.000 aletik gora saldu ziren, *Diario de Navarraren* arabera («La escritora Lucía Berlin y la turbadora belleza de sus nuevos cuentos» artikulua), eta Premio Llibreter saria eman zioten. Frantsesez, *Manual à l'usage des femmes de ménage* (Grasset, 2017) izenean argitaratu zen; saldutako aleen daturik, kasu honetan, ez dago eskuragarri. Hain justu, lan honetarako itzulgai hartu dugun ipuina, «Grief», istorio-bilduma horretan dator.

Lucia Berlin euskal munduan

Lucia Berlinen kontakizunek oraindik ez dute euskarazko itzulpen argitaraturik, nahiz eta euskal mundura izatez iritsi den haren lanaren oihartzuna. *Berria* egunkariko artxihoan begiratuta, bera baita, neurri batean, euskal jendartearen gertatzen diren gauzen erakusleho, ikusi dugu Goizalde Landabasok iritzi-artikulu bat idatzi zuela osorik haren inguruan (2015) eta «Lucia Berlin» izeneko, zeinetan Berlinen bizitza gogorarekin lotzen baitu haren idazketa ezohikoa. Bertan, euskal irakurleari Berlinen eta haren literaturaren lagin bat ematearren, «Good and Bad» kontakizuneko esaldi baten itzulpena ere badakar: «Meatzarien etxeak lohiak eta zatarrak ziren, hormetan txarto idatzitako sloganekin, txiklearekin inkatutako panfleto komunista, eta, gure aita eta meatzagintza ministroaren odolez zikindutako egunkari-argazkiarekin». Hiru urte geroago (2018), berriz iritzien atalean, «Lau emakume» izeneko artikuluan, Landabasok berriz adierazten du gustuko duela Lucia Berlin. Gainerakoan, *Berria* egunkarian ez dago Lucia Berlinen aztarnarik.

*Nai*z atari digitalean, Amalur Artolak (2018) Xabier Mendiguren editore eta idazleari egindako elkarrizketa batean, Mendigurenek Lucia Berlin aipatzen du. Elkarrizketatzaileak esaten dionean «Dena den, emakumeak literatur mundu horretan

sartu izanak aldatu ditu tonuak eta gaiak», Mendigurenek zera erantzuten dio: «dudarik gabe. Alice Munro, Wislawa Szymborska, Anne Sexton, baita Lucia Berlin ere, niretzat deskubrimentu handia izan dena».

Halaber, *Elkar* aldizkarian, Txani Rodriguezek (2016) idatzitako «En primera persona» izeneko artikuluan (gaztelaniaz), aipamen egin zitzaion Berlini, «niaren idazketaren» autorea dela esanez, eta, artikuluko horrek ere haren literaturaren gordintasuna haren bizitzarekin jartzen du korrelazioan.

Aipamen horiez gain, ezer gutxi iritsi zaigu euskal prentsara Lucia Berlini buruz. Hala ere, 2016an argitaratu zen *A Manual for Cleaning Women* gaztelaniazko itzulpena Espainian, esan nahi baita, geroztik, hegoaldeko euskaldunek eskuragarri izan dutela liburua saltokietan; ez hori bakarrik, gaztelaniazko itzulpena tertuliagai izan dute Hego Euskal Herriko hainbat txokotan ere. Horren adibide dira liburu horren inguruan, batik batik gaztelaniazko irakurle-taldeetan, antolatu diren tertuliak, hurrenez hurren: Santurtzin (2017-02-07), Lezon (2017-03-28), Tolosan (2017-10-17), Iurretan (2018-02-06), Urretxun (2018-05-24) eta Leioan (2019-01-08), adibidez. Bestalde, Donostian ingelesezko tertulia bat egin zen (2018-09-10), eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako «Emozioak entrenatzen literaturaren bidez» tailerrean (2018ko irailetik abendura bitarte) ere Lucia Berlinen materiala erabili zuten.

Horrek guztiak adierazten du azken boladan, denbora-tarte laburrean gainera (2017. urteaz geroztik), Berlin erreferentzialtasuna eta entzutea lortzen ari dela euskal kultura zertzen den ingurune geografikoan ere.

3. ITZULPENAREN ANALISIA

Atal honetan, aukeratutako itzulgaia itzultzeko hartu behar izan diren erabaki esanguratsuenen berri emango dugu, zailtasunak aipatuz eta horien aurrean hartu ditugun erabakiak justifikatuz.

Istoria Mexikon gertatzen da. Itzulgaiko pertsonaia nagusiak bi ahizpa kaliforniar dira, Dolores eta Sally, eta beren artean hizkera nahiko informalez mintzo dira. Ahizpetako batek urte asko daramatza Mexikon, eta istorioaren kokalekua ere bera denez, gaztelaniazko hitz batzuk tartekatzen dituzte elkarriketetan. Ahizpez gain, bigarren mailako pertsonaia modura, ingelesez hitz egiten duten bi senar-emazte pare daude: alemaniarra bata (wachertarrak), eta kanadarra bestea (lewistarrak).

Istoria 3. pertsonako narratzaile orojakile batek kontatzen digu, eta badirudi dena jakiteaz gain, *in situ* bizi dituela gertakizunak.

3.1. Aldez aurretiko oharra

Lana banatzen duten hiru bloke nagusiei heldu aurretik, («Lexikoa», «Morfosintaxia» eta «Pragmatika»), bi alderdiri buruzko argipenak emango ditugu, hain zuzen, ahozkotasunari eta pertsonaien karakterizazioari buruzko argipenak. Baiki, alderdiok zehar-lerro izan ditugu bloke guztietan ez ezik, itzulpen-prozesuan zehar hartu behar izan ditugun beste erabakietan ere.

3.1.1. Ahozkotasuna

Itzulitako kontakizunaren zati nagusia elkarriketek osaturikoa da; ondorioz, ahozkotasuna ezinbestean kontuan hartu beharreko faktorea izan da itzulpen-prozesuan, eta, hain zuzen, garrantzi berezia eman diogu itzulpenean, ikusita fikziozko euskarari egozten zaion naturaltasun falta.

Ahozkotasunaz ari garenean, ezin da ahaztu sortutako elkarriketak fikziozkoak izango direla. Horrek esan nahi du elkarriketek ahozkotasuna iradokitzen dutela, baina kanala idatzizkoa dela, ez ahozkoa. Kanal aldaketak hala eskatzen du: pertsonaiek ez dute erabiliko euskal hiztun natiboek ahozkoan darabilten euskara bera, edozein hizkuntzatan idatzizko testuak eta ahozko elkarriketen transkripzio «errealak» desberdinak diren era berean.

Bestalde, elkarrizketak ez dira izango jatorriz gure XHn sortutakoen parekoak, hau da, testu hori jatorriz euskaraz idatzia izan balitz bezalakoak; konbentzio modukoa da, itzulpen bat irakurtzen ari den irakurle orok jakin badaki bertan ageri diren pertsonaiak ez direla jatorriz euskaraz (edo beren XHn) ari eta jakitun da itzultzailearen mediazio-lanaz. Esan daiteke, hortaz, hizkuntza-aldaketa hori sinesgarritasun-irizpideetatik at dagoela, hots, txinatar bat euskaraz aritzeak ez diola istorioari sinesgarritasuna kentzen; bestela itzulpen jardunak berak ez luke funtsik.

Behin konbentzio hori onartuta, itzultzaileak ahalegina egingo du, metodo interpretatibo-komunikatiboari jarraikiz, irakurlearengan STaren idazleak emandako edukiak ematean, STak sortzen duen efektura ahalik eta gehien hurreratzen, testuinguru komunikatibo eta pragmatiko guztia kontuan hartuz (Lobato 2012). Egun, itzultzaileari XTko baliabide horiek nolnahi erabiltzeko lizentzia ematen zaio, baldin eta egindako aldaketak azken emaitzari (itzulpenaren osotasunari) mesede egiten badiote.

3.1.2. Pertsonaien karakterizazioa

Hizkera pertsonaien beste ezaugarrietako bat da, eta koherente izan behar du beraren ezaugarriekin. Koldo Bigurik *31 eskutik* blogean «Fiction or fake» artikuluan (2014) zioen: «Zalantza (...) izaten dut beste liburu batzuetan, jatorriz euskaraz idatziak izan nahiz itzuliak izan, pertsonaia baten dialogoetan agertzen denean haren ezaugarriei ez dagokion euskara modu bat, euskara superzuzena, arauzkoa, zalantzagabea, perfektua». Eta testua errematatzen du esanez «ume euskaldun baten ahotan, *zeniezazkidakeen* bat» entzutearekin konparatzen duela fikziozko elkarrizketen sinesgarritasun eza.

«Grief» kontakizunean, pertsonaien berezko ezaugarriekin koherente izate aldera, hau da, elkarrizketak naturalak izan daitezen, bi alderdi errespetatu dira: batetik, pertsonaien adina, eta bestetik kaleko euskaran ezohikoak (artifizialak) diren esaerak eta moldeak ez erabiltzea. Biek ala biek sinesgarritasunaren mesedetan jokatuko dute.

3.2. Lexikoa

Lexikoari dagokionez, arreta berezia eman diogu sinesgarritasunari eusteari. Bai, hitzak ez dira neutroak, eta euskara batukoak izanagatik, guztiek dituzte ezaugarri bereizgarri batzuk, diatopikoak, diakronikoak, diafasikoak edo diastratikoak, adibidez. Hitz

bakoitzak dituen tasunek ahalbidetzen dute itzulpengintzan efektuak imitatzea. Zentzu horretan, koherentzia izatea komeni da; nahiz itzultzen aritu, ez da komeni tasun desberdinak era nabarmenean nahastea. Horrek kutsu artifiziala emango lioke testuari, ahozko hizkera naturalean ere horrelakorik gertatzen ez denez gero.

Horren adierazle dira kazetaritza-hizkerako jarraibideak ere. Esaterako, *Berriako Estilo Liburuak* (2013) honako hau dio:

«Kazetari guztiek erabiltzen dituzte, beren euskalkikoak ez ezik, besteetako hitzak eta esapideak ere, baina zentzuz osatu behar dute nork bere hizkera, eta ez testu berean alde eta aldi guztietako hitzak eta egiturak nahasiz. Esapide hibridoek artifizialkeria ekartzen diete testuei» («Hizkuntza eredua» atala, «barne koherentzia» azpiatala).

Kazetaritzan bezalaxe, itzulpenetan ere esaten den horrek sinesgarria izan behar du, baldin eta kontatzen den fikzio horrek errealitatean gerta litekeen zerbait kontatzen badu.

3.2.1. Lexiko aukeraketa: izenburua eta azken esaldia

Kontakizun baten izenburuak garrantzi berezia du, aurreratu edo laburtu egiten digulako ondoren etorriko dena; azken batean, horixe da idazleak lanari jartzen dion «etiketa» eta irakurleak irakurriko duen lehena, eta, askotan, hura erakartzeko funtzioa ere izango du. Hori dela eta, estrategikoki hautatuak izan ohi dira, eta ez da ezohikoa hitz-jokoak zein mezu ezkutuak izatea. Kasuan kasu, baina gauza bera esan genezake lan baten azken esaldiari buruz ere, kontatzen dena biribiltzeko funtzioa izaten baitu, are gehiago kontakizun laburren generoan ari bagara.

Kasu honetan, kontakizunaren izenburua ez da itzultzen samurra, polisemia medio. Izan ere, ingelesezko «grief» hitzak, *Oxford English Dictionary*ren arabera, adiera hauek izan ditzake:

1. Pena sakona, bereziki dolua, baita horien eragileak ere.
1. Arazoa edo traba.

Bi adiera horietatik, testuingurua aintzat hartuta, euskarazko ordain posibleak bilatu dizkiogu: «dolua», izan ere, bi ahizpei ama duela gutxi hil zaie; «pena», batetik Doloresen damua, ama azken momentuetan ez zaindu izanagatik, bestetik Sallyren pena, amarekin zuen harremana gaiztotu zelako; «arazoa» (hainbat arazo dituzte ahizpek, adibidez, Sallyk

lotsa sentitzen du bular bat falta duelako eta gainera senarrak utzi egin du eta Dolores alkoholikoa da isilpean); eta, azkenik, «mina», aurretik esandako ezbehar guztiek sortu diena.

«Dolu» hitza erabiltzeak gehiegi zehaztuko luke «grief», polisemia deuseztatzeraino; egia da «arazoak» direla istorioan edonon agertzen direnak, baina ikuspuntu desberdina du «grief»ek, ez baitu ezbeharretan jartzen arreta, haien aurrean norberak duen pertzepzioan baizik; eta «mina» hitza gordinegia dela erabaki dugu. Horrenbestez, «penak» izenburua jartzea erabaki dugu, pluralean, hala hitzaren esanahi anitzak iradokiko dituelakoan, eta interpretazio irekia utziko diolakoan irakurleari.

Azken esaldiak honela dio STan: «By the time the taxi reached the airport she was, like they say, feeling no pain». Itzultzen zaila den unitatea «feeling no pain» hori da; hitzez hitzezko esanahiaz haratago, hots, minik ez sentitzearen adieraz haratago, unitate fraseologiko horrek erreferentzia egiten dio mozkor-mozkor eginda egoteari ere.

Honela itzultzea erabaki dugu: «Taxia aireportura etorri zitzaionerako, esan ohi den moduan, itoak zituen penak». «Itoak zituen penak» esamoldearekin, lehenik, unitate fraseologiko batekin amaitzea mantentzen da; gero, STarekin bezala, erreferentzia zuzena egiten zaio alkoholari; eta, azkenik, amaiera biribila ematen dio testuari, XTari eman diogun izenburua («Penak») barnean dakarrelako.

3.2.2. Lexiko aukeraketa: maileguak

Lehenik, kasu batzuetan, maileguak erabili dira horien ordain euskaldunak hautatu beharrean. Ibon Sarasolak *Bitakora Kaiera* liburuan dioen moduan (2016), hizkuntza batek, beste hizkuntzekin ukipen-egoeran dagoen neurrian, ezinbestean du beste hizkuntzen eragina, eta jendeak erabiltzen duena da bultzatzatu behar den euskara, nahiz eta batzuetan hori ez datorren bat akademiaren (kasu honetan, Euskaltzaindiaren) proposamenekin.

Guk, itzulpenean, ahalik eta ahozkoatasun gehien eman nahi izan diogunez testuari, mailegu batzuk sartzea erabaki dugu, baita mailegu horiek euskarazko ordain jatorragoak zituzten kasuetan ere. Hauek erabili ditugu: «selfish»/«egoista»; «silly»/«absurdoa»; «bossy»/«marimandona»; «they don't care»/ «ez zaiela inporta»; «jungle»/«jungla»; «gorgeous»/ «elegantea»; «doctor»/ «mediku»; «wagon»/ «karroa». Ez ditugu baztertu

«suposatzen dut» moduko kalko sintaktikoak ere, ahozkoan barra-barra erabili arren, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ez datozenak. Kasu horretan, ETCn 7.306 agerraldi ditu «suposatu» aditzak, eta hori lagin nahikoa adierazkortzat jo dugu. Gainerakoan, maileguen aldeko hautua egin dugu, betiere gutxieneko batzuk bermatuta, esaterako, Iparraldeko hiztunek ulertuko dituzten ala ez bermatuta, ondorengo azpiatalean azalduko dugunez.

Adibideok testuingurutik at egonik, garrantzitsua da ulertzea ez dituztela itzulpen-unitateak osatzen, eta batzuen itzulpenak askeegia irudi lezakeela; kontrara, ikusarazi nahi duguna da ahalegin berezia egin dugula ahozko euskaran maiz agertzen diren ezaugarri batzuk (maileguak) txertatzeko, eta horrek eragin du muturreko zuzentasunari (garbizalekeriari) iskin egitea.

3.2.2.1. Iparraldeko irakurleen auzia

Kontuan hartu beharrekoa da, gaur-gaurkoz, euskara batuaz aritzeak ez duela bermatzen mezua ulergarria izatea euskaraz hitz egiten den eremu geografiko guztian, euskara batuaren gauzapena askotarikoa izan daitekeelako. Arraratsek dioen moduan (2018) «euskalki guztietako hitz, esamolde eta joskera guztiak estandarren parte dira, batuak ortografiaren eta aditz-paradigmen bitartez markaturiko jokalekuaren barrenean».

Xabier Elozegi Aldasorok *31 eskutik* blogean (2013a eta 2013b) adierazi zuenez, Iparraldeko euskara eta Hegoaldekoa, biak batuak izanagatik, hain dira desberdinak, non haien hiztunek elkar ulertzeko arazoak baitituzte («Euskara batua Iparraldetik» eta «Euskara batua Iparraldetik (eta II)» artikuluetan). Sarasolaren esanetan (2016), euskara batuaren sorreran saiatu ziren Iparraldeko eta Hegoaldeko hiztunek komunean zituzten hitzen aldeko apustua egiten, baina gerora Hegoaldeko hiztegia nagusitu da:

«(...) Batasunaren hasieran *istripu*, *bulego* edo *greba* bezalako hitz asko eta asko ekarri zituen Iparraldeak euskara batura, baina horrelako hitzak batasuneko lehen etapako, hots “diziplinapeko” etapako kontuak dira. Harrezkero, tamalez, ez dio Iparraldeak gauza handirik ekarri euskara batuko lexikoari» (Sarasola 2016:51).

Hala ere, aurrerago dio ikastoletako irakasleen eta EITBren bitartez, iparraldetarrek gero eta gaztelaniatik etorritako mailegu gehiago ulertzen dituztela; horrek ematen digu, nolabait, ulergarritasun-irizpide hori itsu-itsuan ez jarraitzeko lizentzia.

Testuaren itzultzailea naizen hau Hegoaldekoa naizenez, arriskutsua zen testuan gaztelaniatik mailegatzeko joera ulergarritasun-arazo izatea Iparraldeko irakurleentzat. Horretaz gain, euskarazko hedabide nazionalak Hegoaldean daudenez kokatuta, euskaldun gehienek Hegoaldeko moldedun euskara idatzia dute eredu. Ondorioz, Hegoaldekoak dira gehien hedatzen diren formak. Horren harira, euskal literatur sistemaren erdiguneaz eta periferiaz, Garazi Arrula Ruizek honakoa dio:

«Sistemaren erdigunean, zalantzarik gabe, Gipuzkoa genuke, eta zehazki, Donostia eta ingurua; zentroa, definizioz, erabakigune baita. Gorago ikusi dugunez, bertan dira argitaletxe eta elkarte gehienak, irakurle gehienak eta idazle gehienak. Beraz, hizkuntza literario erabiliena ere bertakoa izanen da, nahiz eta aurki daitezkeen mendebaldeko eta ekialdeko kutsua duten literatura lanak ere, bai euskaraz sortuak bai itzuliak, betiere euskara batuaren barruan» (Arrula 2018:114).

Hortaz, ereduzko idazmoldeak ia beti Hegoaldekoen euskara batuan hedatzen dira, eta euskaraz idazten (edo euskarara itzultzen) duten gehienek nekez dute hizkuntza-esperientziarik Iparraldeko formekin. Gure itzulpenean, erabakiak hartzerakoan, Iparraldeko eta Hegoaldeko hizkeren arteko oreka bilatzen saiatu gara. Izan ere, errealitatea da euskarazko itzultzaile gehienok Hegoaldekoak garela, eta Iparraldekoak izanda ere, Hegoaldeko irakasleek formatzen dituztela; izan ere «gaur egun Frantzian ez dago itzultzaile-eskola edo -fakultaterik euskara aintzakotzat hartzen duenik. Euskaratik frantsesera eta alderantzizko itzulpenak hizkuntza-ikasketetan soilik landu daitezke, hots, euskal filologiako ikasketetan, edozein atzerriko hizkuntza-ikasketetan egiten den moduan» (Alegria 2008). Baieztapen hori duela hamar urte baino gehiagokoa den arren, oraindik Iparraldeko ikasleak Hegoaldera (Gasteizko Letren Fakultatera) etortzen dira Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak egitera.

Horrenbestez, gaur-gaurkoz Hegoaldekooi dagokigu haiek aintzat hartzea eta behintzat haiei ulergarri zaien euskara batuan idaztea. Ulertzeko zailtasun horiek batik bat maileguetan islatzen dira, bi aldeetako euskaldunok mailegu-iturritzat hizkuntza desberdinak baititugu.

Hori horrela, hasiera batean erabiltzea erabaki genuen maileguak galbahetu, eta bi motatakoak bakarrik onartu ditugu. Batetik, zilegi iritzi diogu a priori Hegoaldeko euskaldunontzat gaztelaniazko maileguak diren maileguak erabiltzeari, baldin eta

Iparraldekoek ere uler baditzakete, frantsesez ere antzeko izendapenak darabiltzatelako: «egoista», «inporta izann», «jungla», «absurdo», «elegante», «suposatu», «mediku». Euskaraz izan badute ordain jatorragorik, baina ahozko hizkeran muturreko zuzentasuna izatea ez da bateragarria sinesgarritasunarekin.

Bestetik, Iparraldeko hizkeran naturalak ez izanagatik, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* etorri badatozen hitzak ere onartzea erabaki dugu. Euskarazko literaturan sarri agertzen dira jatorriz Iparraldeko hizkerakoak diren hitzak («xerka» eta «izkiriatu» tankerakoak), eta jakintzat ematen da irakurlearen ardura dela horiek ulertzea, horretarako hiztegiak baliatuz. Iparraldeko euskaldunak kontuan hartzeak ez du esan nahi euskalki- edo lurralde-markak dituzten hitzak baztertu behar ditugunik, baina erabiltzen dugun euskara euskaldun gehienek hizkuntza-esperientziara egokitu behar zaio. Aipatutako adibideen artean, «karro» da irizpide horri jarraikiz onartu dugun bakarra; hala eta guztiz ere, irizpide orokor moduan aintzat hartu beharrekoa dela uste dugu.

Salbuespen modura, bada bi kategoria horietan sartzen ez den eta erabili dugun beste mailegu bat ere: «marimandona» («bossy» itzultzeko). Ohar modura, oihu modura ageri da «bossy, bossy!» forman, beraz, agerikoa da adierazkortasun handia duen ordain baten beharra; alta, ez da baleko *Elhuyar Hiztegiak* «bossy»-ren ordain gisa ematen duen «agintzaile» izendapena. Horren aurrean, Imanol Epelderen «Irainak biraoak laidoak burlak isekak euskaraz» birao-sortan (2011), hau dakar agintzaile edo larderiatsu dena iraintzeko: «Marimaistra, marimandona, marisarjenta, sargentoa»; Juan Jose Zubirik eta Patxi Salaberrik, *Biraoak Nafarroan Bilduak* liburuan ere izendapen berak dakartzate:

«Marimandona. Agintzea gustatzen zaion emakumea. (...) Ikus *mandona* eta *marisarjenta*» (Zubiri, Salaberri 2007:80)

Halaber, *Goenkale Corpuseko* euskarazko gidoi zatietan ere, baditu agerraldiak. Horiek horrela, gaztelaniaz ere erabiltzen den «marimandona» izendapena erabiltzeko lizentzia hartu dugu, izendapenen artean adierazkorrena eta testuingurura hobekien egokitzen dela iritzita.

Irizpide horri berari jarraikiz, batzuetan ez dugu maileguaren aldeko hauturik egin: adibidez, STak «falsie» esaten duenean, «bular-betegarri» itzultzea erabaki dugu, Hegoaldean, ahozkoan ohikoagoa «relleno» izan arren, eta Iparraldean, «rembournage»; bestela esanda, euskaldunok erdal hitzak erabili ohi ditugu ahozkoan, euskarazko

artikuluarekin. «Bular-betegarri» izendapenak kutsu artifiziala izan dezake, baina egiaz, egitura gardena duenez, intuizioz guztiek ulertzeko moduko izendapena da, eta horregatik aukeratu dugu; finean, sinesgarritasun printzipioak ez du balio lehenik ulergarritasunarena bermatzen ez bada.

Guk maileguak aztertu ditugu, beharbada ulergarritasunerako oztopo nabarmenak begi-kolpe batean erdaretako eragin zuzena jasotzen dutenak, baina esan behar da kalkoak (lexikoak, sintaktikoak), aditz-formak eta beste hainbat eta hainbat desberdintasun daudela Hegoaldeko eta Iparraldeko euskara batuen artean. Muga administratiboek bereizitako bi aldeentzako euskara batu bat zertzea, itzulpen honetatik haratago, euskal testugintza osoan egin beharko litzatekeen ahalegina da.

3.2.3. Lexiko aukeraketa: terminologia-arazoak

Batetik, ipuinean bereizketa terminologiko bat egiten da «snorkelling» eta «diving» terminoen artean, ingelesak bereizi egiten baititu euskaldunontzat kontzeptu bakarra diren bi terminook: «snorkelling» «snorkel» batekin, hots, ur azpian arnasa hartzeko hodi batekin egiten den modalitatea da, «scuba diving», berriz, urpekaritza-botilarekin egiten den hori.

Euskaltermek «snorkel» hodiarentzat soilik ematen du ordaina: «arnas hodia». Aldiz, guk jarduerari berari egin behar diogu erreferentzia, hori baita hizpide dugun itzulpenak aipatzen duena. Bestalde, *ETCn* «snorkel» maileguak ez du agerraldi bat ere, ezta ortografia egokitutako «esnorkel» aldaerak ere. Zehaztasun semantiko erabatekoa nahi izanez gero, bi aukera genituzke: parafrasia bata, «(arnas) hodiarekin urpekaritza egin»/ «*snorkel* hodiarekin urpekaritza egin», eta bestea terminoa bere horretan mailegatzea «*snorkel* egin». Parafrasiaren arazo nagusia da luzeegia dela ahozko elkarrizketa baterako, eta estiloa kargatzen duela, narratzailearen ahotsean ageri denean, zeresanik ez, «urpekaritza egin» dagoeneko aditz konposatua izanik.

Euskarazko testuetan termino hori nola erabili izan duten aztertu nahian, *Googlen* bilaketa egin dugu, «snorkel euskara» bilatuta. Agertutako agerraldi guztien artean, esanguratsuenak galbahetu ditugu, esanguratsutzat jo ditugunak hedabide ofizialetan edo udaletako web-orrietan datozelako:

- **Orotariko web-orri informatiboak:**

«51 urteko bilbotar bat hil da Almerian, esnorkel egiten ari zela» (EITB, 2017)

«Surfa, urpekaritza eta snorkelling modalitatea ezagutzeko ekintzak ere egingo dituzte» (*Berria*, 2011)

«Snorkel urpekaritza hastapen ikastaroa antolatu dute» (*Txintxarri Aldizkaria*, 2019)

«Mutrikura egun-pasa egingo dute, eta bertan, snorkel-a egingo dute igerileku naturalean». (*Goiena Aldizkaria*, 2018)

«Big Sup + Snorkel: Kontrabandisten kala ezagutu ezazu Big Sup-ean. Eta gero toki berezi honetan snorkela praktikatu» (Gorlizko Udala, 2016)

«kanoetan ibiltzera irteera bat antolatu da, zeinean uretako beste ekintza batzuk ere egingo dira, “snorkel” adibidez». (Gueñesko Udalbatza, 2015)

Bilaketak emandako emaitzak testu informatiboetan ageri dira, eta ez da harritzekoa halako testuetan modalitate hori aipatu izana, ez baita kontzeptu hori bera izendatzeko beste izendapenik euskaraz. Testu informatiboetan, ikusi denez, erabili erabiltzen da «(e)snorkel egin» izendapena; haatik, gure itzulgaia literatur testua izanik, komeni da ea literatur generoko testuetan zer-nola erabili izan den ere aztertzea.

Literatur kutsuko testuetan nola erabili izan den ikusteko, hasteko, *EPG* corpusean egin dugu bilaketa, eta ez dugu agerraldi bat bera ere aurkitu; ondorioz, badakigu 2000-2007 urteen artean idatzitako liburuetan ez zutela izendapen hori erabili. Orduan, jakinik Susa argitaletxeak bere liburuak osorik argitaratzen dituela online, *Googlen* «susa literatura snorkel» bilaketa egin dugu, komatxorik gabe. Adibide gehiagoren bila, *Googlen* «snorkel berria.eus iritzia» bilatu dugu. Izatez, *Berriako* iritzi artikuluek ez dute zertan literatur testuak izan, baina hala balira bezala interpretatu ditugu; iritziak diren neurrian, idazleak malgutasun nahikoa baitu, nahi izanez gero, «snorkel» modalitatea bera ez aipatzeko, edo besterik gabe «urpekaritza» hiperonimoa erabiltzeko. Artikulu horiek zuzenean *Berrian* bilatu ditugu, bertan argitaratutako testuak, euskararen zuzentasunari dagokionez, eredugarriak direla iritziak. Hona hemen emaitzak:

- **Literatur kutsuko testuak:**

«Calo de Sant Agusti arrantza-portu txiki bat da, *snorkel* egiteko egokia» (*Jenisjoplin*, Uxue Alberdi, 2017)

«erregina ez zen inoiz Groenlandiako ur hotzetan *snorkel* egiten ibili» (*Berria*, Lander Garroren iritzia, 2016)

«Denbora gehiena snorkeling egiten pasatu omen zuen gizaseme hark, baina uretatik aterata, alboan omen zituen, liburu bana irakurtzen» (*Berria*, Goiatz Labandibarren narrazioa, 2016)

Literatura arlokoetan, oro har, sarrera gutxiago ditu «snorkel egin» izendapenak, esan bezala, literaturak askatasun handiagoa ematen baitu kontzeptualki ere, hau da, idazleak kontzeptu bat nola izendatu ez badaki, beti du hura izendatzen dakien beste batekin ordezkatzeko aukera. Hala ere, «*snorkel* egin» izendapenak eta bere aldaerek («snorkeling egin») izan badituzte agerraldi batzuk literatur kutsuko testuetan ere.

«Grief» kontakizunean, gainera, zailtasun erantsi bat du «snorkelling» itzultzeak, kontrakotasunean ageri baita «scuba diving» jarduerarekin, honatx:

«“Oh, yes, we went with the Lewises a few days ago. It’s perfectly lovely. You’re going snorkeling?”

“Scuba,” Dolores said.»

Aukera bat da «igeri egin»/ «urpekaritza egin» bikotea erabiltzea (egokitzapenaren itzulpen teknika,), baina testuaren edukia aldatzera behartzen gaitu. Irakurleak kontakizunean aurrera doala *palapa*, *huipila*, *guayabera*, tekila, lastozko kapelak eta abar irakurtzen dituen neurrian, testuinguru bat sortzen die irakurtzen ari den gertakizunei, eta ulertzen du elementu batzuk, kulturagatik, arrotz izango zaizkiola. *Snorkel* egitearena ez da zehatz-mehatz gauza bera, jarduera hori Euskal Herrian egon badagoelako, nahiz eta ez den ñabartzen ur azpian edo ur-azalean aritzen ote den. Kasu honetan, erabaki dugu *snorkel* egiteari gainerako elementu kulturalen trataera bera emango diogula, eta ez diogula ezkutatu behar irakurleari Mexikon urpekaritza-modalitateen arteko bereizketa egiten dela:

«—Bai, bai, lewistarrekin izan ginen, egun batzuk badirela. Zoragarria benetan. *Snorkel* egitera zoazte?

—Urpekaritza egitera—esan zuen Doloresek—».

Gaur egun, gainera, hitz hori ulertzen ez duenak erraztasun ugari ditu, Interneten bidez, izendapen hori zeri dagokion kontsultatzeko.

3.2.4. Lexiko aukeraketa: erregistroa

Erregistroak, berez, lexikoa baino eremu zabalagoa hartzen badu ere, azpiatal honetan lexikoari dagokion horretan bakarrik jarriko dugu begia. Naturaltasunaz ari garelarik, esan behar da elkarrizketetan ageri diren hitz batzuk («artesian putzu» eta «etxekotu», kasu) ez direla oso ohikoak ahozkoan, kontzeptu zehatzak izendatzen dituztelako, hitzun arrunt batek egunerokoan behar ez dituenak; behar izatekotan, seguruenik erdaretan ematen ditu. Lehen ere esan dugun moduan, ez da ahaztu behar pertsonaiek ez dutela hitz egingo euskaldun natiboek hitz egiten duten moduan, kontuan izanda ahozkoa eta idatzia kanal desberdinak direla eta nork bere bereizgarriak dituela; hortaz, zilegi deritzogu, besterik ezean, ahozkoan maiz agertzen ez diren esamoldeak erabiltzeari, kasuan kasu.

Elkarrizketetan ez diegu tokirik egin lexiko-elementu formalei, naturaltasunaren eta sinesgarritasunaren mesedetan, baina bai, ordea, narratzailearen ahotsean. Zati narratiboetan aldendu egin gara ahozketasunetik, erregistro altuagoko moldeei toki eginez, hauek, kasu: «istorio bihotz-altxagarriak»; «Doloresek ekin zion senipartea ondo bana zezaten, baina laidoa ez zen gutxitu»; «eskuez ferekatuz»; «laztan eman zion»; «egoera begiesten zuen»; «senti zezakeen bakarra damua eta alhadura zen»; «kartsuki musukatzen eta besarkatzen zuen»; «bozkarioa eta esker ona puruak ziren»; «gizonak bihotza erdiratu zion». Kontrakotasun horri uneoro eutsi zaio, testuari koherentzia emate aldera, eta bi diskurtso-motak (narratzailearena eta elkarrizketena) bereizteko xedez.

3.2.5. Lexiko aukeraketa: esanahi-murrizketa

Itzulpen-prozesuan, itzultzaileari interpretazioak egitea egokitzen zaio maiz. «Top»/«blusa» itzuli izanari eman nahi diogu arreta: zehaztasun gutxiko hitza da «top», euskaraz pare-pareko ordainik ez duena. «Top», izatez, «soinaren goialdeko arropa da» (*Elhuyar Hiztegiak*), eta definizio horren arabera, gauza asko izan daiteke euskaraz: alkandora, blusa, kamiseta, elastikoa, etab. Horri itzulpen-proposamen bat egiteko, hizlariaren beraren ezaugarriei heldu diegu, eta, pentsatuz Lucia Berlinek 1960.-1990. urteen artean idatziko zuela, eta bi emakume heldu direla protagonista, ondorioztatu dugu logikoena dela emakume horiek garai hartan «blusak» janztea; horregatik aukeratu dugu

«blusa». Euskaraz jatorrizkoaren pareko izendapen generikorik ez edukita, esanahi murrizketara jo behar izan dugu.

3.2.6. Lexiko aukeraketa: adierazkortasuna

Adierazkortasunaren harira, ahozkoan maizago ageri dira hitz adierazkorak, beraz, guk ere ezinbestean bilatu behar izan dugu adierazkortasun hori elkarrizketetan. Horren adibide dugu «naked» itzultzeko «larrubizirik» erabili izana, «biluzik» beharrean. Era berean, pertsonaiak haurtzaroko oroitzapenez ari direnean, «katu» beharrean «mitxina» erabili dugu, zeina katu esateko forma herrikoa (eta zabalkuntzaz adierazkorra) baita, *Elhuyar Hiztegiaren* arabera.

3.3. Morfosintaxia

3.3.1. Tratamendua: hitanoa zilegi ote den

Lagunarteko testuinguruko elkarrizketaz jositako testu bat dugu itzulgaia. Horren harira, euskarak badu, ingelesak ez bezala, solaskidearen tratamendu berezi bat, batik bat hizkera informalerako erabiltzen dena: hitanoa. Nahiz ingelesak halakorik ez izan, euskaraz elkarrizketei ahozkotasuna eta bizitasuna emango liokeen ezaugarria dela pentsatuta, itzulpenean erabili egin dugu. Azpiatal honetan, erabaki hori justifikatuko dugu.

Hika erabiltzea zilegi ote den erabakitzeko, eta sinesgarritasuna kontuan hartzeko kontua denez, hikaren erabilera naturala, hots, testuinguru soziala (noiz, nork, nola erabiltzen duen) aztertu beharko da.

Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian, «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen» artikuluan datozen puntu batzuk interesgarri zaizkigu gure analisirako (Alberdi 1994). Batetik, azpimarratzen du hika «elkarrizketako era» dela eta ez duela zertan erregistro apalekoa izan, hau da, egokitzen jotzen du literaturarako edo aldaera estandarretarako ere.

Ondoren, hirugarren puntuan, honakoa dio: «3. Euskaraz, mendebaldeko hizkuntza gehienetan ez bezala, V-V¹ da legea ezkonduen artean». Hori ikusita, erabaki dugu itzulgaiko ezkontideek ez diotela elkarri toka/noka hitz egingo.

¹Testuan, V: eztabadaka, zuka; T: hika

Laugarren puntuan, anai-arreben arteko elkarriketetan hitanoak duen erabilerari heltzen dio: «Iragarpenen arabera, hitanoa eta, zehatzago esateko, elkarrekiko hitanoa (T-T) haurrideen artean gerta omen daiteke beste inon baino gehiago (...) hala ere, hikako maiztasuna oso desberdina da sexuaren arabera: % 90,3koa anaien kasuan (toka-toka), % 48,6koa neba-arrebenean (toka-noka) eta % 49,4koa ahizpen artean (noka-noka). Sexua kontutan hartzen baldin bada, portzentaiok euskaraz gerta daitezkeen altuenak dira, adiskideen artekoak baino altuxeagoak, alegia». Horren arabera, %49,4koa zen 1994an bi ahizpa elkarrekin noka aritzeko probabilitatea. Hortaz, datuen arabera, ez dago bi ahizpak (Dolores eta Sally) elkarri noka aritzeko galarazpenik.

Halaber, 11. puntuan adierazten denez, «elkarrekiko hitanoak (T-T), sexu bereko adiskide adinkideen artean du azaltzeko probabilitaterik handiena (% 76,3aren ingurukoa) (...) adiskideak sexu desberdinekoak izatera, hitanoak nabarmenki egiten du behera, emaitzak T-T, V- V eta T-V aukeren artean banatzen eta zatikatzen direlako». Berlinen ipuineko adiskideen artean, sexu bereko adiskideen artean erabilerari oso altua denez, esan daiteke zilegi dela senarrek beren artean hika hitz egitea. Eztabaidagarriagoa da emazteek beren artean hika egitea sinesgarria ote den, ikusita noketa toketa baino dezente urriagoa dela, pertsonaien arteko gertutasuna edozein dela ere («Hitanoa non eta nori erabiltzen duen», 12. puntua). Alabaina, senar-senar emazte-emazte harremanak, biak sexukideen arteko adiskidetasun-harremanak dira; beraz, uste dugu irakurleari arreta emango diola harreman bat hika transmititzea eta bestea zuka, eta ez dugu nahi haiek alderdi horri arreta ematea, izatez sorburu-testuak halako ezer nabarmentzen ez duelako. Horrenbestez, bi kasuetan (emakume-emakume eta gizon-gizon) erabiliko da hika.

Puntu berean adierazten da ezezagunen artean V-V (zuka) nagusitzen dela %81ean; horrenbestez, adineko senar-emazteek ahizpekin zuka hitz egingo dute.

12. puntuan jakitera ematen denez, «T-T maiz gertatuko bada, sexukidetasuna egon behar du. Sexuzko desberdintasunak garbira jokatzen du elkarrekiko hitanoaren aurka». Horrenbestez, ez dugu hika erabiliko lau senar-emazteak taldean hitz egiten dutenean, edo zehazten ez denean mezua zehazki nori zuzendua dagoen.

Kontakizunean, ama hilda egon arren, Sallyk gogora ekartzen ditu behin berak amari esandako hitzak, baina, badakigunez senide gazteek zaharragoei beti eztabadaka, zuka, hitz egiten diela (artikulu bereko 1. puntua), hala egingo dio Sallyk ere bere amari.

Egia da artikulu hori 1994. urtekoa dela, eta beharbada datu berriek beste zerbait esango liguketela, seguruenik, hikaren erabileran beheranzko joera duela ikusiko baikenkeen. Hala ere, Alberdi Larizgoitiak ematen dituen datuak baliogarriak dira, datu orientatibo gisa, besterik ez dugun artean.

Hika fikzioan

Behin betiko erabakia hartu aurretik, komeni da ereduzko prosari begirada bat egitea, literatura tradizioan hikak zein toki izan duen ikusteko. Horretarako, *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) baliatuta, bilaketa bat egin dugu: «lema» atala hutsean utzi, eta morfologiaren estekan, «beste aditz-ezaugarriak» dioen atalean «emakumeekiko hitanoa» bilatu dugu. Hala, kolpe bakarrean bi gauza konprobatuko ditugu: ea euskaldunak ez diren pertsonaien ahotan hikarik erabili izan den, eta, toka ez ezik, ea noka ere erabili ote den, jakinik hizkera naturalean erabileraz dezente apalagoa dela.

Corpusean, guztira 125 liburutan erabili izan da noka; oso datu adierazgarria, inondik ere, corpusak osotara 2000-2006 urte bitarteko 287 liburu biltzen baititu. Pertsonaia atzerritarrak hika ari ote diren konprobatzeko lagin adierazkorrena itzulpenena da; bada, pertsonaiak ia-ia beti izango baitira atzerritarrak. Corpuseko liburu guztiak ez dira fikziozkoak, saiakerak eta enparauak ere badaude, baina itzulpenetan, denek erakusten dizkigute atzerritarrak euskaraz hitz egiten, eta berdin balio digu hikaren zilegitasuna neurtzeko.

Itzulpenen kategorian, gutxi-asko, literatura lan hauetan erabili izan da noka besteak beste: *Maitea* (Toni Morrison, itz: Anton Garikano), *Pedro Páramo* (Juan Rulfo, itz: Juan Garzia), *Desio izeneko tranbia* (Tennessee Williams, itz: Xabier Paya), *Atzo* (Agota Kristof, itz: Eskarne Mujika), *Parisen sabela* (Emile Zola, itz: Karlos Zabala) edo *Fidel izan beharraz* (Oscar Wilde, itz: Antton Olano) eta *Hamlet* (William Shakespeare, itz: Juan Garzia).

Hika, solaskide batzuen artean

Literatur tradizioko datuak ikusita, esan daiteke itzulpenetan nokak (eta zabalkuntzaz, hikak, oro har) baduela tradizioa, eta guztiz zilegi dela gure itzulpenean hika erabiltzea, beste hizkuntzetan ez dagoen tratamendua izan arren. Laburbilduz, hika (noka zein toka) erabiliko dugu ahizpen artean eta senar-emazteen artean sexukide direnen artean (emakume-emakume eta gizon-gizon). Gainerako kasuetan, pertsonaiak zuka mintzatuko

dira, baita hartzailea nor den zehazten ez den kasuetan ere, hain justu, ahozko erabilera errealean gertatzen den modu bertsuan.

3.3.2. Aditz trinkoak

Bestalde, ahozko hizkuntzan nekez entzuten diren aditz trinkoak aditz laguntzailearekin eman ditugu; esaterako, koherenteago iritzi diogu «irudi» aditza forma trinkoan ez emateari, kasu horietan trinkoa erabiltzea oso ezohikoa delakoan, hirugarren pertsona singularrean ez denean («badirudi», etab.); haatik, «mexikarra ematen din» «Amazona bat ematen ninan» eta «ez duk ematen hain lazarria» erabili ditugu, hau da, aditz konposatuen forman.

Aldiz, narratzailearen ahoan, ez diegu iskin egin aditz trinko erregistro jasoagokoei, «ziharduela», kasu.

3.4. Pragmatika

3.4.1. Pragmatika, lexiko-zehaztasunaren gainetik

Lexiko-zehaztasuna eta literalitasuna ezaugarri garrantzitsuak dira testu-genero batzuetako testuen itzulpenetan; esaterako, itzulpen juridikoan edota zientifiko-teknikoan. Ordea, literaturan, garrantzi handiagoa izan ohi du helburu komunikatiboak, erabilitako hitzek sortzen duten efektuak edo, finean, azken emaitzak.

Esan bezala, ahozkotasunari arreta berezia eman diogu lan honi dagokion itzulpenean; horrenbestez, kasu batzuetan pragmatika edo testuaren helburu komunikatiboa gainjarri dizkiogu testuaren esanahi semantikoari. Atal honetan, elkarrizketen zatiak erakutsiko ditugu, bai jatorrizko testua eta baita hari dagokion itzulpena ere, erabilitako tekniken arabera sailkatuta.

1. Plurala:

ST	XT
«Now what»	«Zer dugu orain»
«What is it?»	«Zer dugu?»
«Where are the sisters today, I wonder?»	«Non ote dira gaurkoan gure ahizpak»

Euskaraz, ahozko hizkera informalean erabiltzen den forma bat da: lehenengo pertsona plurala erabiltzen da, nahiz eta esaldiaren berezko subjektua singularra izan, lehenengo kasuetan bezala: ez da «gu» hipotetiko batez ari, «zer gertatzen da orain» edo «zer duzu orain» da esan nahi dena, hurrenez hurren. Hirugarren adibidean, izatez determinatzaile zehaztua darabil eta esan genezakeen, jatorrizkoaren egiturari eutsita, «non ote dira gaurkoan ahizpak» ere; ordea, «gure» erabilia idiomatikoagoa da euskaraz eta argi uzten du «hizpide izan ditugun ahizpez» ari garela.

1. Interjekzioak: «ba», «bo», «to»

ST	XT
«Can you imagine? Sisters!»	«Pentsa ezazu <u>ba</u> , ahizpak!»
«No! That's not why she's crying! Their mother has just died! Two weeks ago! Can you imagine...»	«Ez da horregatik, aditzen? Ama hil berria zaie! Bi aste direla! Pentsa, <u>ba</u> ...»
«Come on, let's get in, it's getting cold»	« <u>Bo</u> , goazen barrura; freskatzen ari du»
«Here! Take this earrings too»	« <u>To</u> ! Hartu belarritako hauek ere»

Taulan azpimarratuta ageri direnak euskaraz ahozkoan asko erabiltzen diren interjekzioak dira. Gehienetan (azken adibidean izan ezik), partikulok ez zetozen STan, hau da, ez dute STko partikula edo ahozko esamolde berezitu bat itzultzen; alabaina, erabili egin dira, ez justu itzulpen-unitate horretako ahozkotasuna itzultzeko, ezpada testu osoko elkarrizketetan nabari den ahozkotasun maila altu horri eusteko. Bestela esanda, beste ezaugarri batzuetan mantendu ezin izan den ahozkotasuna konpentsatzea eta elkarrizketei egiazkotasuna ematea dute helburu.

Ohar modura, ahozkotasunera egokitu izanaren beste adierazle bat da «bada» hitzaren ordez, «ba» erabili izana, zeina lehenaren elkarrizketetarako forma baita, *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* jarraikiz.

2. Unitate fraseologikoak (UF):

ST	XT
«See, Sally, there is so much you can do, that you can enjoy»	«Begira, Sally, gozatzen ditunan <u>makina bat eta bi gauza</u> egin ditzaken»
«I don't remember that at all»	«Ez dinat <u>zipitzik ere</u> gogoratzen»
« <u>keep your mouth shut</u> »	« <u>mihia txulora</u> »

«We're acting just like real sisters! Fighting!»	«Benetako ahizpak bezala ari gaitun jokatzten! <u>Elkarri mokoka!</u> »
--	---

Kasu batzuetan, UFak txertatzearen alde egin dugu, jatorrizkoan ez bazeuden ere, makro maila hartu dugulako aintzat, hau da, elkarrizketa batek testuan betetzen duen funtzioa eta dituen tonua eta estiloa. Beste batzuetan (hirugarren adibidean bezala), STan dagoeneko bazegoen UF bat beste batekin ordezkatzea erabaki dugu.

Aipatutako kategoriez gain, badira aipatzea merezi duten beste adibide batzuk ere. Kasu batzuetan, izen baten esanahi semantikoari ñabardurak gehitu dizkiogu, eufemismora joz, ñabarduradun izendapenak ahozkorako aproposagoak eta erabiliagoak zirela iritzita. Horren adibide dira: «it's getting cold»/«freskatzen ari din» («hozten ari din» orde, «freskatzen» eufemismora jo ohi da ahozkoan, nahiz esanahiz berez «hozten» litzatekeen); eta «you're going back to the city with a tan»/«kolore pixka batekin itzuli behar dun hirira». Bigarren horretan, «beltzaranduta» litzateke jatorrizkoaren ordain zuzenena semantikari dagokionez, baina, interpretazioz, pentsa dezakegu Doloresek Sallyri esaten diona soilik dela, hirira bueltatzean, nabaritu egin behar zaiola azalean oporretan egon izana.

Kasu guztietan, helburua ahozko hizkerara gehiago hurbiltzea izan da, eta azpiatal honetako adibideek hori erakusten dute: zein lizentzia hartzea erabaki dugun ahozkotasan eta naturaltasunaren izenean.

3.4.2. Kultur erreferentziak

Itzulgai dugun testuan, kultur erreferentzien agerpena urria izan bada ere, labur aipatuko dugu hartutako erabakien zergatia.

Definizio bat ematearren, Franco Aixeláren (1996) arabera, kultur erreferentziak elementu batzuk dira, zeinak SHn funtzio eta konnotazio batzuk dituzten zailak direnak XHra transferitzen, bi hizkuntzen arteko kultur desberdintasunak direla medio. Kultur erreferentzia horiek itzultzeko, kasuan kasu, itzulpen-teknika jakin batzuk erabiltzen dira, Arrularen (2008) definizioaren arabera, «mikro mailako azterketa deskriptiboetan identifikatzen ahal diren horiek».

Hurtado Albirrek hemezortzi kategoriatan sailkatzen ditu itzulpen-teknikak:

«Adaptación, ampliación lingüística, amplificación, calco, compensación, compresión lingüística, creación discursiva, descripción, elisión, equivalente acuñado, generalización, modulación, particularización, préstamo, sustitución, traducción literal, transposición y variación» (Hurtado Albir 2001: 642).

Berak erabili duen tekniken sailkapenean oinarrituta (2001), kasu gehienetan «mailegatzeteknika» («préstamo») erabili dugu.

Matiollik (2014) proposatutako kultur erreferentzien sailkapenaren arabera, agertzen diren erreferentzia kultural gehienak «kultura materiala»ren motakoak dira:

XT	Mota
« <i>huevo ranchero</i> ak»	Elikagaiak
« <i>palapako hondarrezko zorua</i> »	Eraikuntza
« <i>huipila</i> »	Jantziak
« <i>guayabera</i> heze eta zimurtuak soinean»	Jantziak

Kultur materialekoak izanik, elementuok ez ditugu aurkituko xede-kulturaren, eta izanik ez dutenez, izenik ere ez dute. XTaren irakurleei ez diegu horiek ulertzeko informazio gehigarri eman, hau da, konpentsatu nahi izan, batzuen esanahia aski hedatua dagoelako, eta beste batzuek eszenatokia «eraikitze» funtzioa dutenez, ez dutelako eragin zuzenik gertakizunen garapenean. Horretaz gain, garaian garaiko baldintzei begiratzeari ere badagokigu, eta gaur egun, esanahia bilatu nahi izanez gero, nahikoa da Internera sarbidea edukitzea.

Beste erreferentzia kultural bat «ingurune natural» motakoa da: «*peine* erraldoia» (arrain bati ematen zaion izendapena da), eta «fauna» motakoa da. Ez dugu «*peine* arrain erraldoia» esan, hau da, hitzez hitzezko itzulpenari ez diogu informaziorik gehitu «anplifikazio-teknikaren» bidez, pentsatu dugulako ez zela garrantzitsua, betetzen duen funtzioa zerrendatze bateko beste elementu batena soilik izanda.

Azken kultur erreferentzia «kultura ondareari» dagokio, eta «moneta-unitate» motari: «ehun eta berrogeita hamar dolar». Berez, dolarrak transferitu zitezkeen, «egokitzen-teknikaren» bidez, xede-kulturako moneta sistemara (euroetara) ere, edota bi datuak eman, baina ez litzateke testuinguruarekiko koherentea, eta gainera, irakurleak jakingo ez

balu hori eurotan zenbat den, «ehun eta berrogeita hamar dolar» esanez gero, ulertzen da produktu garestia zela (esaldiaren azken mezua).

EIMAREN *Ortotipografiak* («Letrakera etzana» atala, 4. puntua) gomendatzen du letrakera etzana erabili behar dela «Erdal hitza dela adierazteko» (Zubimendi 2004:19). Horri jarraikiz, guk ia denak eman ditugu letrakera etzanez, «dolar» izan ezik, euskaraz baliokide onartua duenez gero.

3.4.3. Hizkuntzen arteko distantzia

Pertsonaia batzuek, ingelesez ari direlarik ere, gaztelaniazko hitzak tartekatzen dituzte beren hizketan, eta guk hitz horiei gaztelaniaz eustea erabaki dugu: «*Putá! Desgraciada!*» «*Mariconas!*»; «*Vamos, Sally, autoa zain dinagu*»; «*barrioko liburutegiaz hitz egin zion*»; «*Ordurako ja maestro bat zunan*»; «*Lista?*»; «*Mi vieja, etorriko al zara bueltan?*» «*No puedo*»; «*baina siesta egin beharra daukat*».

Ez da gauza bera ingelesezko hizketaldi batean gaztelaniazko hitzak tartekatzea, edo gauza bera egitea euskarazkoan; izan ere, lehenak AEBko eta Mexikoko egoera soziolinguistikoa islatuko du, eta bigarrenak, aldiz, Euskal Herri hegoaldekoa iradoki dezake. Hala eta guztiz ere, kultur erreferentziek sortzen duten eszenatokiari esker, irakurleak erraz ulertuko du egiaz istorio hori Mexikon dagoela kokatuta, pertsonaia horiek berez euskaraz ari ez direlako konbentzioa onartua duenez gero. Are gehiago, gaztelaniazko hitz horietako batzuk irakurtzean («*mariconas*» eta «*mi vieja*», idazleak ematen dien adieran), euskal irakurlea zuzenean jabetuko da erabiltzen duten hizkera Latinoamerikako gaztelania-aldaeraren batekoa dela.

Egiaz, «*siesta*» izendapena euskarazkoa ere izan daiteke, baina letrakera etzanez jartzea erabaki dugu, hala irakurleari arreta eman diezaion eta pentsa dezan, letrakera etzanez idatzitako gainerako hitzen moduan, hori ere gaztelaniaz esan dutela pertsonaiek.

EIMAREN *Ortotipografia* eskuliburuak erdal hitzak adierazteko letrakera etzana erabiltzea gomendatzen duenez («Letrakera etzana» atala, 4. puntua), denak ala denak letrakera etzanez eman ditugu; jatorrizkoan ere hala zetozen.

3.4.4. Haur literatura eta haur hizkera

Orain arte egindako analisisian, uneoro pertsonaien hizkera ahozko hizkerari eta adin jakineko jendearen hizkerari egokitzeaz aritu gara; ordea, bada momentu bat bi ahizpen elkarrizketan haurtzaroa gogoratzen dutena, eta haur zirela esaten zituztenak errepikatzen dituztena, hitzez hitz. Horrek gogorarazten digu lehen «pertsonaien berezko ezaugarri» izendatu ditugunak aldakorrak izan daitezkeela lan baten barnean ere. Aipatutako kasuan, gai-aldaketa soil batek helduen hizkeratik haurren hizkerara jauzi egitera garamatza.

Hain justu, hiru unitate ageri dira testuan haur hizkerarekin zerikusia dutenak. Lehena, ipuin baten izena («Dr. Bunny») aipatzen denean. Gainerako literatura motetan ez bezala, haur literaturan izen bereziak itzultzeko joera dago, hain justu, izenek esanahiren bat izaten dutelako sorburu-hizkuntzan. «Dr. Bunny» izenak ez du arazo handirik eman, hitzez hitzeko itzulpenarekin ondo funtzionatzen du-eta: «untxitxo sendagilea».

Haur literaturarekin eta hizkerarekin lotura duen bigarren aipua «all better» esamoldea da. Ingeleseko esamolde hori haurrekin erabiltzen da gehienbat (ez beti), zauri bat-edo erabat sendatua dagoela adierazteko arao moduan. Ipuinean, helduen arteko elkarrizketa batean dator (bi ahizpen artean), baina haur-hizkeraren kutsu handia du, solaskideak esamolde berberarekin erantzuten diolako, galdera-erantzun moduan. Honatx:

«“All better,” she said, automatically.

“All better!” Sally sighed.»

Euskaraz erabili dugun esamoldeak haur-hizkera kutsuari erantzun helburuz sortu dugu:

«—Senda senda, miriku —esan zuen automatikoki.

—Oilo kaka xiriku —Sallyk, hasperen eginez.»

Azkenik, hirugarren haur hizkerako elementuak hoskidetasunean oinarritutako hitz-joko bat egiten du:

«And you got every word perfect, except when Dr. Bunny would say, ‘Case dismissed!’ you said ‘Smith to Smith!’»

Paranomasia baliabide literarioa darabil umore-iturri gisa, zeinetan, «antzeko hotsa baina zentzu ezberdina duten hitzak errepikatzen» baitira (*Literatura Terminoen Hiztegia*). Ondorioz, hoskidetasunaren efektu horri eusten saiatu gara, eta bigarren mailakoa izango

da esaera horren esanahi semantikoa. Hori bai, testuinguruak diosku hitz egiten ari dena sendagilea dela, eta, horrenbestez, sinesgarritasunak koherentzia eskatzen du: erabiltzen dugun esamoldeak logikoa izan behar du mediku-kontsulta baten testuingururako. Bigarren zatia osatzeko, hau da, paranomasia baliatuz, haur hizkera simulatu behar lukeen zatia osatzeko, haur hizkerako hitzek komunean dituzten ezaugarriak zein diren aztertu dugu:

«Gehienak bi silabakoak edo silaba bakarrekoak dira (gutxi batzuk hirukoak) eta maiz onomatopeien antzeko errepikapenak egiten dituzte (taka-taka, koko-koko) Fonemen aukeraketa modu egokian egin da. Bokalak aukeratzen dira hiruko sisteman (a-e-o edo a-i-u-, inoiz ez batera, esaterako, a-e-i). Eta kontsonanteetan, nabarmenenak erabiltzeaz gainera (leherkariak batez ere), gehienetan silaba beraren errepikapenez osatzen da hitza (papa, pipi, pupu)». (Ansorena 2002)

Ansorenaren ezaugarriak buruan, hau sortu dugu:

«Eta hitz bat bera ere ez zenuen kale egiten! Sendagileak «zaintiratua!» esaten zuenean izan ezik; zuk, orduan: «Tintin katua!» esaten zenuen».

4. ONDORIOAK

Lan honen bitartez, Lucia Berlinen «Grief» ipuina euskaratu dugu eta xeheki aztertu dugu haren itzulpen-prozesua. Prozesuan zehar izandako zailtasunak hiru bloke nagusitan banatu ditugu: «Lexikoa», «Morfosintaxia» eta «Pragmatika», hiru blokeetako zehar lerro moduan «Ahozkoasuna» eta «Pertsonaien karakterizazioa» hartuta.

Hasteko, ondorio nabarmena da testu-generoaren eragina, testua literatur generokoa izateak baldintzatu baititu hartutako erabaki guztiak, adibidez, lexiko-zehaztasunaren gainetik irizpide pragmatikoak izan ditugunean lehentasun. Horrenbestez, argi ikusi da itzultzaile batek testu baten itzulpenari ekitean, kontuan hartu beharko duen lehenetarikoa testu-generoa dela.

Ondoren, elkarrizketa ugaridun ipuina izanda, garrantzi berezia eman diegu elkarrizketei eta ahazkotasunari. Horren harira, erabaki kontziente eta zehatzak hartu dira: batetik, hitanoa erabiltzea, eta bestetik, lexiko-elementuen zein aditz-formen erregistroa zaintzea, testuingurua eta pertsonaien karakterizazioa aintzat hartuta, elkarrizketak irakurleari al bait natural suerta zekizkion. Erabaki horiek balio izan dute euskarazko elkarrizketek duten artifizial-kutsutik aldentzeko; finean, xede-hizkuntzak berezkoak dituen ezaugarriekin jokatu dugu, sinesgarritasunaren mesedetan. Hala eta guztiz ere, batzuetan ahazkotasun hain erabiliak ez diren forma batzuk erabili beste aukerarik ez dugu izan, ahaz erabiltzen diren forma horiek aldameneko erdaretakoak zirelako edo erdaretatik eratorritako maileguak. Halako kasuen aurrean, Hegoaldeko eta Iparraldeko euskaldunek, denek, ulertuko duten euskara lehenetsi dugu.

Gero, Hegoalde eta Iparraldeko hiztunen ulergarritasunari dagokionez, arreta berezia eman diegu maileguei; izan ere, ikusi dugu euskara batuaren erabilera askotarikoa izan daitekeela, eta batuaz egiteak, gaur-gaurkoz, ez duela bermatzen euskaldun guztien ulergarritasuna. Hatsarre hori urratu gabe, ipuineko maileguak onargarri zirenentz aztertzeko sailkapen-irizpide batzuk finkatu ditugu, eta horien arabera maileguak galbahetu. Azpimarratzekoa da ulergarritasun-printzipio hori bera aplikagarria dela beste zeinahi itzulpenetan edo euskarazko testugintzan ere, euskara batua egunez egun eta egitearen egitez sortzen den zera moduan ulertuta.

Xede-kulturaren presentzia ere agerikoa izan da hartutako hainbat erabakitan: *snorkelling/diving* terminoen itzulpenari, kultur erreferentziei eta hizkuntzen arteko distantziari dagozkion ataletan ikus daiteke hobekien. Euskaraz idazteak berarekin dakar

testuinguru soziopolitiko eta kultural bateko irakurleentzat idaztea, zeina ahaztu ezin den faktorea baita, itzulpena kulturen arteko zubi-lan ere baden neurrian.

Bestalde, agerian gelditu da literaturak berarekin dakarren aldakortasuna, edo, nahi bada, izaera poliedrikoa. Adibidez, haur literaturari eta haur hizkerari dagokion puntuan ikusi da, une batetik bestera pertsonaien karakterizazioaren araberako hizkera aldatu behar izan dela, eta sinesgarriki haur baten hizkera imitatu behar izan dela.

Oro har, lan honek agerian utzi du literatura itzultzeko itzultzaile batek beharrezko dituela malgutasuna eta sormena, eta beste genero batzuetan baino gaitasun interpretatibo handiagoa. Itzulpen jarduna etengabe erabakiak hartzean datza, eta lan hori kontzienteki eta modu koherentean egin dela justifikatu dugu lanean zehar. Analisi eta gogoeta lan sakon horri zor diogu «Penak» itzulpena.

5. BIBLIOGRAFIA

- Alberdi Larizgoitia, Javier (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*. 39. liburukia, 3. zk., 983-993 or. Online kontsultatua: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49990.pdf> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Alegria, Edurne (2008). Itzulpengintza iparraldean. *Senez* (35), 51-57 or. Online kontsultatua: <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20081028/alegria> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Ansorena, Jose Inazio (2002-03). Haur hizkera. *BAT Aldizkaria* (42). Online kontsultatua: <http://www.soziolinguistika.eus/node/914> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Arrarats, Irene (2018-09-15). Mailu bat iltzera. *Berria*. Online kontsultatua: https://www.berria.eus/paperekoa/1943/024/002/2018-09-15/mailu_bat_iltzera.htm [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Arrula Ruiz, Garazi (2018). *Autoitzulpenaren teoria eta praktika* (doktoretza-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. Online kontsultatua: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/27983/TESIS_ARRULA_RUIZ_GAR_AZI%20%28eusk.%29.pdf?sequence=1&isAllowed=y [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Artola, Amalur (2018/07/14). «Euskal literaturan azken urteetako ahots interesgarrienak emakumezkoenak izan dira». *Gara*. Online kontsultatua: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2018-07-14/hemeroteca_articles/euskal-literaturan-azken-urteetako-ahots-interesgarrienak-emakumezkoenak-izan-dira?fbclid=IwAR3Mc-kwa5nQptmo0uHPBV_Xarq9yRjptmZBp46AKbcwqzeQDTzlbGPNLx8 [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Berlin, Lucia (2015). *A Manual for Cleaning Women*. Farrar, Straus and Giroux: New York.
- Biguri Otxoa de Eribe, Koldo (2014-03-03). Fiction or fake [blogeko sarrera]. *31 eskutik*. Online kontsultatua: <https://31eskutik.com/2014/03/03/fiction-or-fake/> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Elhuyar Fundazioa (2019). *Elhuyar Hiztegiak*. Online kontsultatua: <https://www.elhuyar.eus/> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Elosegi Aldasoro, Xabier (2013-05-06). Euskara batua Iparraldetik I [blogeko sarrera]. *31 eskutik*. Online kontsultatua: <https://31eskutik.com/2013/05/26/euskara-batua-iparraldetik-i/> [azken kontsulta: 2019-05-15]

- Elosegi Aldasoro, Xabier (2013-05-31). Euskara batua Iparraldetik II [blogeko sarrera]. *31 eskutik*. Online kontsultatua: <https://31eskutik.com/2013/05/30/euskara-batua-iparraldetik-eta-ii/> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Epelde, Imanol (2011). Irainak biraoak laidoak burlak isekak euskaraz [blogeko sarrera]. *27 zapata*. Online kontsultatua: <http://www.argia.eus/blogak/imanol-epelde/wp-content/uploads/2011/09/esanindarra1.pdf> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Euskal Editorea SM (2013). *Berriaren Estilo Liburua*. Online kontsultatua: <https://www.berria.eus/estiloliburua/> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Euskaltzaindia (2008). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Online kontsultatua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_argitalpenak&Itemid=1217&view=katalogoa&lang=es&edukia=fitxa&argitalpena_id=367 [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Euskaltzaindia (2015). *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Online kontsultatua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Eusko Jaurlaritza. *Euskalterm terminologia banku publikoa*. Online kontsultatua: <http://www.euskadi.eus/euskalterm/q91aAction.do> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Franco Aixelá, Javier (1996). *Condicionantes de traducción y su aplicación a los nombres propios (inglés-español)* (doktoretza-tesia). Alicante: Universidad de Alicante
- Hurtado Albir, Amparo (2001). *Traducción y Traductología: Introducción a la traductología*. Madrid: Cátedra.
- La escritora Lucía Berlin y la turbadora belleza de sus nuevos cuentos (2018-11-09). *Diario de Navarra*. Online kontsultatua: <https://www.diariodenavarra.es/noticias/cultura-ocio/cultura/2018/11/09/la-escritora-lucia-berlin-turbadora-belleza-sus-nuevos-cuentos-620233-1034.html> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Landabaso, Goizalde (2015-11-24). Lucia Berlin. *Berria*. Online kontsultatua: https://www.berria.eus/paperekoa/1922/017/002/2015-11-24/lucia_berlin.htm [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Landabaso, Goizalde (2018-07-03). Lau emakume. *Berria*. Online kontsultatua: https://www.berria.eus/paperekoa/1892/016/002/2018-07-03/lau_emakume.htm [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Lobato Patricio, Julia (2012). El proceso traductor explicado a partir de un caso práctico: la traducción (español-inglés) de un documento jurídico. *Revista de estudios filológicos* (23) ISSN 1577-6921. Online kontsultatua: https://www.um.es/tonosdigital/znum23/secciones/estudios-13-proceso_traductor.htm [azken kontsulta: 2019-05-15]

- Mattioli, Virginia (2014). *Identificación y clasificación de culturemas y procedimientos traductores en el archivo de textos literarios* estudio de corpus LIT_ENIT_ES (master amaierako lana). Universitat Jaume I. Online kontsultatua: <http://repositori.uji.es/xmlui/handle/10234/112279> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Oxford University Press (2019). *Oxford Dictionaries*. Online kontsultatua: <https://www.oxforddictionaries.com/> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Rodriguez, Txani (2016). En primera persona. *Elkar* (46). Online kontsultatua: <https://issuu.com/elkarcom/docs/elkar-aldizkaria-46-negua-invierno-2016> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Salaberri Zaratiegi, Patxi eta Zubiri Lujanbio, Juan Jose (2007). *Biraoak Nafarroan bilduak*. Iruñea: Pamiela.
- Sarasola, Ibon (2016). *Bitakora kaiera*. Donostia: Erein.
- UPV/EHU (2010). *Goenkale Corpora*. Online kontsultatua: <https://www.ehu.eus/ehg/goenkale/> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- UPV/EHU (2016). *Egungo Testuen Corpora (ETC)*. Online kontsultatua: <http://www.ehu.eus/etc/> [azken kontsulta: 2019-05-15]
- Zubimendi, Joxe Ramon (2004). *ORTOTIPOGRAFIA. Ikasmaterialen Aholku Batzordea. Estilo-liburuaren lehen atala*. Online kontsultatua: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf [azken kontsulta: 2019-05-15]

6. ERANSKINAK

6.1. Itzulpena

Penak

—Zer demontretaz ari ote dira bi horiek uneoro hizketan? —galdetu zion Wacher andreak senarrari gosaldorduan.

Itsas-aldamenean, aire zabaleko lastozko teilapedun jantokian, ahizpei ahaztu egiten zitzaizkien beren papaiak, beren *huevo ranchero*ak, hitz eta pitz. Beranduago, buruak bata bestearenganantz zituztela zebiltzan ur-bazterretik paseoan. Hitz eta pitz. Olatuek oharkabean harrapatzen zituzten eta blai egiten, eta haiek barre egiten zuten. Gazteenak maiz ematen zion negarrari... Negarrez hasten zenean, zaharrenak itxaron egiten zion, kontsolatu egiten zuen, musuzapi bat luzatzen zion. Malkoak akitzean berriro ekiten zioten berrikerari. Ez zirudien gogorra, zaharrenak, baina ez zuen inoiz negarrik egiten.

Hoteleko gainerako bisitari ia guztiak jangelan zein hondarretako aulkietan zeuden elkarrekin eserita eta isilean; tarteka iruzkinak egiten zizkioten egunaren perfektutasunari, itsasoaren turkesa-urdinari, haurrei xuxen esertzeko esaten zieten bitartean. Eztei-bidaian zen bikoteak ahapeka hizketan eta elkarri zirika ziharduen; batak besteari meloi mokadutxoak ematen zizkioten ahora, baina gehien-gehienean isilik, elkarren begiei so, elkarren eskuei begira. Bikote adindunek kafea hartzen zuten, eta irakurri edo gurutzegramak egiten. Elkarrizketa laburrak izaten zituzten, monosilabikoak. Konpainiarekin kontent zirenek asperdurak edo erresuminak jotakoek bezain hitz gutxi egiten zuten; haien hizketaren erritmoa bakarrik aldatzen zen, jokoan batera eta bestera dabilen tenis pilota alfer baten modura, edo zapla euli bat akabatzean nola.

Ilunabarrean, argiontziak piztuta, bikote alemaniarra, wachertarrak, erretiroa hartutako beste bikote batekin, Kanadako lewistarrekin, ari zen bridgean jokatzeko. Guztiak ere jokalaririk serioak zirenez, elkarrizketa minimoa zen. Banatutako karten klaska, Wacher jaunaren «mmm»-ak. «Bi, triunforik ez». Olatuen aparrak zirtaka, izotz kubotxoak edalontzietan. Emakumeek, tarteka, esaten zuten zerbait: biharamunean erosketak egitera joateaz, La Islara txango bat egiteaz, ahizpa hiztun misterioetsuez. Zaharrena, hain dotorea

eta estiloduna. Berrogeita hamarnaka urte, baina galant bere itxurakerian. Gazteena, berrogeita batzuk, polita zen, baina gustu gutxikoa, sotila. Ene, ez al da ba berriro negar batean hasi?

Wacher andreak deliberatu zuen biharamunean ahizpa zaharrenari hurreratuko zitzaiola, hura goizeroko igeriketa-saioan ari zela. Lewis andreak gazteenarekin hitz egiteko asmoa zuen, zeinak ez baitzuen igeri egiten eta ez baitzen eguzkitan jesartzen; aldiz, bestearen esperoan egon ohi zen tea tragoxka txikitik edanez, ireki gabeko liburu bat eskuetan.

Iluntzean, Wacher jauna puntuazioen koadernoaren eta karten bila joan zen, eta Lewis jauna edari eta zizka-mizkak eskatzera tabernara; bitartean, bi andreak trukatu egin zuten lortutako informazioa.

—Hainbeste hitz egiten dituen ez dutelako elkar ikusi hogeitaz urtean! Pentsa ezan, ba! Ahizpak! Nirekin hitz egin duenak Sally izena din, Mexiko Hirian bizi dun, mexikar batekin ezkondu zagon eta hiru seme-alaba ditun. Gaztelaniaz hitz egin dinagu; benetan, mexikarra ematen din. Ez dun mastektomia egin zaharra, horregatik ez dun sartzen uretara. Minbiziaren terapia datorren hilean hastekoa dun. Horregatik ari dun negar eta negar, seguru. Horixe lortu dinat, ahizpa etorri den arte, eta aldatzera joan ditun.

—Ez dun horregatik, aditzen? Ama hil berria zaien! Bi aste direla! Pentsa, ba... eta orain, hemen, *resort* batean oporretan...

—Zer gehiago kontatu din? Nola din izena?

—Dolores. Kaliforniakoa, erizaina dun, eta lau seme koskortu ditin. Ama duela gutxi hil zaiela esan din, eta ahizpak eta biek kontu franko dituztela hitz egiteko.

Emakumeek guztia ulertu zuten. Sally, ezta, ama ezinduaren kargu egina izango zen urte horietan guztietan. Ama zaharra azkenean hiltzean, Dolores errudun sentitu zen, ahizpak zaindu baitzuen ama, eta berak ez baitzien sekula bisitarik egin. Eta ondoren ahizparen minbizia. Dolores zen dena ordaintzen zuena, taxi-gidaria, zerbitzaria. Ikusia zuten zentroko arropa-dendetan Sallyrentzat arropak erosten. Errua; horrexek izan behar du. Damu du ama ez bisitatu izana hil aurretik, eta ahizparekin adeitsu izan nahi du hura ere hil baino lehen.

—Edo Dolores bera hil aurretik —esan zuen Lewis andreak—. Gurasoak hilak ditunanean, herorren heriotzari egin behar dion aurre.

—Horixe...Ez zegon eta heriotzaren aurrean babestuko hauenik.

Bi andreak isilik ziren; konforme gelditu ziren beren txutxu-mutxu kaltegabearekin, beren analisiarekin. Orain, etortzekoa zitzairen euren heriotzan zuten pentsamendua. Beren senarren heriotzan. Istant batez bakarrik. Hirurogeita hamarka urte bazituzten ere, sasoiak zeuden bi bikoteak, aktibo. Bizitza osoki bizi zuten, egun bakoitza gozatuz. Senarrek aulkiak mahaietik atera zituztenean eta jokaldirako eseri zirenean, plazer egin zien jokora batzeak, bi ahizpena zeharo ahaztuta, zeinak orduan elkarren ondoan eserita baitzeuden hondartzan, izarren azpian.

Sally ez zen negarrez ari euren ama zenagatik edo minbiziagatik. Senarragatik zen. Alfonsok utzi egin zuen, hogeitaz urteren ondoren, emakume gazte bategatik. Itxura batean basakeria bat zirudien, justu mastektomiaren ondorenean. Sally lur jota zegoen, baina ez, ez zen inoiz harengandik dibortziatuko, ezta emakumea haurdun eta harekin ezkontzeko asmotan egonagatik ere.

—Itxaron dezatela ni hil arte. Ni aurki hilko naun, seguruena datorren urtean... —Sallyk negarrari eman zion, baina ozeanoak ito zion negar-zotinen soinua.

—Ez haiz hiltzen ari. Minbizirik ez dagoela esan dinat. Erradioterapia errutina dun, badaezpadarako. Hori aditu zionat medikuari: minbiziarekin akabatu dutela guztiz.

—Baina bueltatuko dun. Beti bueltatzen dun.

—Hori ez dun egia. Ahaztu, Sally.

—Oso hotza haiz. Batzuetan ama bezain ankerra haiz.

Doloresek ez zuen ezer esan. Hori zuen beldurretan handiena: ama bezalakoa izatea. Ankerra, zurruteroa.

—Begira, Sally. Dibortziatu eta has hadi herorren burua zaintzen.

—Ezin dun ulertu! Nola ulertuko dun nola sentitzen naizen harekin hogeitaz urtez bizi ondoren, bakarrik egon bahaiz ia denbora horretan guztian! Niretzat Alfonso bakarra izan dun, hamazazpi urte nituenetik! Maite dinat!

—Imajina zezakenat— Doloresek, lehor—. Bo, goazeman barrura; freskatzen ari din.

Logelan, Doloresek argia zuen bere eltxo-sare zuriaren barruan; irakurtzen ziharduen loak hartu aurretik.

—Dolores?

Sally negarrez ari zen berriz. Jainko maitea. Zer dugu orain.

—Sally, nire onetik ateratzen naun ezin badut irakurri goizetan jaiki orduko eta lotaratu aurretik. Txotxolokeria dun baina tira, horrelaxe dun. Zer dugu?

—Ezpal bat sartu zaidan oinazpian.

Dolores jaiki egin zen orratz baten bila; antiseptiko batzuk eta tiritita bat hartu zituen, eta ezpala erauzi zuen ahizparen oinazpitik. Sallyk berriz negar, eta Doloresek laztan eman zion.

—Hemendik aurrera beti egongo gaitun elkarrekin. Gauza ederra dun ni zaintzen nauen ahizpa bat izatea.

Doloresek Sallyren oinazpiko tiritita zanpatu zuen tolesik izan ez zezan, umetan hamaikatxo aldiz egin zuen modura.

—Senda senda, miriku —esan zuen automatikoki.

—Oilo kaka xiriku —Sallyk, hasperen eginez. Segidan hartu zuen loak. Dolores irakurtzen jardun zen ordu batzuk gehiagoz. Azkenean, argia itzali zuen, edateko zerbaiten desiraz.

Nola eman Sallyri bere alkoholismoaren berri? Hori ez zen heriotzaz edo senar baten galeraz, bular bat galtzeaz, hitz egitearen parekoa. Gaitz bat zela zioten, baina ez zuen inork behartu edanari ematera. «Gaitz hilgarri bat daukat. Hezurretaraino ikaratuta nago», esateko gogoia zuen Doloresek, baina ez zuen esan.

Wachertarrak eta lewistarrak izaten ziren beti gosaritarako aurrenekoak, eta elkarren ondoko mahaietan hartzen zuten tokia. Senarrek egunkaria irakurtzen zuten; emazteak,

bitartean, kontu kontari aritzen ziren beren artean eta zerbitzariekin. Gosalondoren, lauak ur sakonetako arrantzara irteten ziren.

—Non ote dira gaurkoan gure ahizpak —esan zuen Lewis jaunak.

—Garrasi batean! Haien logela paretik pasa naizenean, sesioan zebiltzan. Hermanek ez du gupidarik, ez dit isil-gordeka entzuten utzi. Sallyk «Ez!» esan du. Ez zuen atso purtzilaren diru malapartaturik nahi, txakur txikirik ere ez! Desesperatuta zegoen garaian, amak iskintxo egin zion eta madarikazioa bota zion neska lotsatiari, koitadua! *Putá! Desgraciada!* Dolores garrasika aritu zaio, «Ez al dakin zer den erotasunak jota egotea? Herori haiz benetan erotuta dagoena... ez dun ikusi nahi! Ama eroak jota zegonan!» Eta gero bera hasi zaio ahizpa gazteari oihuka: «Kendu hori! Kentzeko hori!».

—Ixo. Hemen datoz.

Itxura zabarra zuen Sallyk, ohi moduan, seinale zuen negarrez aritu izana; Dolores, ohi moduan, bare zegoen eta apain baino apainago. Berak eskatu zuen gosaria bientzat, eta gerturatzean, entzun zitekeen ahizpari esaten:

—Jan. On egingo din. Edan laranja-zukua osorik. Gozo-gozo zagon, espezial.

—Kendu hori!

Sallyk gorputza estali zuen, *huipila* gorputzera gogor atxikita. Doloresek indarrez kendu zion, eta biluzik egotera behartu zuen, hortxe, agerian utzita behinola bularra izan zuen eremua, orbain urdin eta gorri bizi kolorekoa.

—Itsusi aparta naun! Ja ez naun emakumea! Ez begiratu.

Doloresek sorbaldetatik heldu zion, eta astindu egin zuen.

—Hire ahizpa izatea nahi dun? Ba, utzi begiratzen! Bai, itsusi aparta dun. Orbainek basakeria bat ziruditen, latzak ditun oso. Baina hire parte ditun orain. Eta emakumea izan bahaiz, txolin alaena! Hire Alfonso gabe, hire bularra gabe, inoiz baino emakumeago izan haiteke, herorren buruaren jabe! Hasteko eta behin, gaur igeri egitera joango haiz, bainujantzian jartzeko erosi dinadan ehun eta berrogeita hamar dolarreko bular-betegarri hori eta guzti.

—Ezin dinat.

—Horixe baietz. Mugi, jantzi eta goazeman gosaltzera.

—Egun on, neskak! —Lewis andreak ahots ozenez bi ahizpei —Beste egun zoragarri bat. Arrantzara goaz. Zer asmo gaurko?

—Igeri egitera goaz, eta gero erosketetara eta ile-apaindegira.

—Sally gaixoa —Lewis andreak—. Argi zagon ez duela horrelako ezer egin nahi. Gaixo zagon eta gainera doluan. Ahizpak behartu egin din oporretan etortzera. Nire ahizpa Irisen modukoa dun. Marimandona, marimandona! Izan huen ahizpa zaharragorik?

—Ez —Wacher andreak, barrez—. Ni nindunan ahizpa zaharrena. Sinets iezadan, ahizpa txikiago bat izateak ere baditin ajeak.

Doloresek hondarretan zabaldu zituen esku-oihalak.

—Kendu hori—. Ahizpak bainujantziaren gainetik jantzi zuen txabusinaz ari zen —Zoragarri hago. Hire bularrak benetakoa dirudin. Gerrialde estu-estua dun. Hanka lerdinak ditun. Baina sekula santan ez dun ikusi zein maitagarria haizen.

—Ez. Hi hintzen ahizpa polita. Ni ahizpa zintzoa nindunan.

—Etiketa hori gogorra zunan niretzat ere. Kendu kapela. Egun gutxi batzuk gelditzen zaizkigun. Kolore pixka batekin itzuli behar dun hirira.

—*Pero...*

—*Cállate*. Mihia txulora, bestela ximurren marka utziko din eguzkiak.

—Zein ederki gauden eguzkitan —Sallyk hasperen egin zuen tarte baten ondoren.

—Gorputzez ere ez al hago hobeto?

—Larrubizirik sentitzen naun. Jende guztiak orbainak ikusiko balitu bezala.

—Badakin zer ikasi dudan? Jende gehienak ez duela ezer igartzen, eta igarrita ere, ez zaiela inporta.

—Zinikoa haiz, gero.

—Eman buelta, olio emango dinat bizkarraldean.

Tarte baten ondoren, Sallyk Doloresi boluntario aritzen zen *barrioko* liburutegiaz hitz egin zion. Pobrezia gorrian bizi ziren haurrei eta familiei buruzko istorio bihotz-
altxagarriak. Ikaragarri maite zuen bertako lana, eta bertakoek Sally bera ere bai.

—Begira, Sally, gozaten ditunan makina bat eta bi gauza egin ditzaken...

Doloresek ekialdeko Oaklandeko klinika batean egiten zuen lan, eta ez zetorkion burura lanari buruzko istorio bihotz-
altxagarriak, Sallyri kontu ziezaiokeenik. Ama crackzaleen sabelean hazitako haurtxoak, tratu txarrak jasandako haurrak, garuneko gaixotasunak zituzten haurrak, Down sindromedunak, bala-zauriak zituztenak, malnutrizioak jotakoak, hiesdunak. Alabaina, langile fina zen eta gustuko zuen bere lana. Edo, tira, gustuko izan zuen garai batean, azkenean kaleratu egin baitzuten zurrutagatik, hilabete bazela, ama hil aurretik.

—Nik ere gustuko dinat nire lana —besterik ez zuen esan—. Goazen igeri egitera.

—Nik ezin dinat. Kalte egingo zidan.

—Sally, zauriak osatuta ditun. Orbainak baino ez ditun. Orbain izugarriak.

—Ezin dudala.

—Jainkoaren izenean, sartzeko uretara!

Doloresek ahizpa olatuak lehertzen ziren lerrora eramanean, eta gero bortizki askatu zion eskua. Sallyri beha egon zen; zein baldar sartu zen uretara, erori egin zela, ura irentsi zuela eta olatu batek eraitsi.

Ur gainean flotatzeko zango-besoei eragiten, Sallyri so jarraitu zuen: nola zutitu zen eta uretan pulunpatu zen zetorkion olatuaren azpitik, gero igerian jarraitzeko. Dolores atzetik joan zitzaion igerian. Ene Jaungoikoa, negarrez ari da berriro; baina ez, Sally barre algaraka ari zen.

—Epel zagon! Epel-epel zagon! Haurtxo bat bezain arina naun!

Luzaroan ibili ziren igerian ur urdinetan. Halako batean olatuak lehertzen ziren tokira itzuli ziren. Arnasarik gabe, irriz, irteten hasi ziren. Sallyk ahizpa inguratu zuen bi besoez eta bi ahizpek elkarri heldu zioten, aparrak orkatilen bueltan zurrunbilotxoak sortzen zizkielarik.

—*Mariconas!* —burla egin zieten paretik pasatu ziren bi mutilek.

Lewis eta Wacher andreek beren hondartza-aulkietatik behatu zuten guztia, nahiko hunkituta.

—Ez dun hain zekena ere, gogor egiten din, hori bakarrik... bazekinan ahizpa, behin uretan, gustura ibiliko zela. Begira zein pozik. Neska gaixoa, oporrak behar zitinan.

—Bai, horrela ikusita ez din ematen halako eskandalua ere, ezta? Oporretara joatea ama hildakoan.

—Arrazoi... tradizio izan behar liken. Hileta osteko oporraldia, eztei-bidaia edo jaiotza-festa egiten diren moduan.

Biek egin zuten barre.

—Herman! —Wacher andreak deiadar egin zion senarrari— Bi andreak hiltzen garenean, emango diguzue hitza zuek, gizonok, oporretara joango zaretela elkarrekin?

Hermanek buruaz ezetz.

—Ez. Lau behar ditugu bridgean jokatzeko.

Arratsean, Sally eta Dolores itzuli zirenean, guztiek konplimenduak egin zizkioten Sallyri, zein polit zegoen esanez. Eguzkiak musuak gorritu zizkion, eta orrazkera berria zuen: kaoba koloreko ile-kiribil leunak zituen aurpegiaren inguruan.

Sallyk behin eta berriro astindu zuen ilea ispiluari begira. Begi berdeek esmeralden gisara egiten zioten dir-dir. Begiok margotzen ari zen Doloresen makillajearekin.

